



Antxina-antxina,
Jesukristo jaio baino urte asko lehenago,
Bizkaiko beserri baten
ama-alabak bizi ei ziran:

Ama, oso lan zalea; alabea, ostera, oso alperra.
Amak, etxeko zereginak eginaz ganera solokoak ere egiten ebazan.
Alabeak, ostera, bere buruko ule gorriak orraztu ta orraztu...
eta besterik ez!

Behin, amak,
alabeagaz gogait eginda*eta hasarrez, bere senetik*urtenda,
– *Hōā hortik aitxina*!* –esan eutsan–
Hōā Anbotora eta ez gehiago hona etorri!

Eta berbok esanaz batera... *dziist!*
GARRRRETAN urten eban aidean alabeak etxetik!
Anbotora heldu zan; eta han
ANBOTOKO SEÑORA bihurtu.

Anboton,
lehenengotan bakar bakarrik eta txarto bizi izan zan
baina gero, inguruko herrietatik jendea etorten hasi jakon
eritxi eta aholku*eske. Ordainez,*

garrrretan!

jan-edariak ekarten eutsoezan. Eta lanik egin bage
oparo bizi*zan.

Ama, etxean, bakarrik eta beti alabearen arduraz...
Anbotora joan zan alabea ikustera
eta haren bizimodu alperra ikusirik

– *Hōā hortik aitxina!* –esan eutsan ostera ere–
Hōā Gorbeiaiko Supilaur lezara!

Eta berbok esanaz batera... *dziist!*

GARRRRETAN urten eban aidean alabeak!
Eta Supilaur-era heldu zan. Eta han
lehenengotan

bakar bakarrik eta txarto bizi izan zan
baina gero,
inguruko herrietatik jendea etorten hasi jakon
eritxi eta aholku eske. Ordainez,
jan-edariak ekarten eutsoezan. Eta lanik egin bage
oparo bizi zan Anboton baizen*ondo.
Amak hori jakin ebanean

– *Hōā barriro ere Anbotora!* –esan eutsan–
Hi hona etorri intzazan ezkeru
gu, herrian, hire erruz, txarrago bizi gōzan-eta!

Eta berbok esanaz batera... *dziist!*
GARRRRETAN urten eban aidean alabeak
handik Anbotora!
Arrezkero, hor ei dabil...
Anbototik Gorbeiara, Gorbeiatik Anbotora,
lezarik leza, Anbotoko Señorea
GARRETAN eta TXISPOTSEAN.



* gogait eginda = aspertuta
* senetik urtenda = desquiciada

* itxina = aurrera; ortik... alde!, ortik zehar!
* aholkua = burubidea, consejo

* ordainez = en comparación
* oparo bizi = bizimodu ona

* ...baizen... = tan... como...